

Zuzendari laguna:

Dakizunez, **Apirilaren 6an Donostiako Barriola Zentroan** eskola publikoek hitzordua dugu ezarrita. Aurten V Jardunaldietarako **ESKOLA PUBLIKOA ARDATZ** lelo adierazgarria aukeratu dugu, Hezkuntza Sistemaren ardatza Euskal Eskola Publikoa izan behar duela sinesten dugulako.

Egun horretarako prestatu dugun egitarauak aukera ezinhobea eskainiko digu gure eskola publikoak epe motzera dituen erronkak ezagutzeko, eta horiei aurre egiteko, denon artean egin behar dugun ibilbidea definitzen hasteko.

Hizlari aditu bikainak ditugu gogoeta eta eztabaida berpizteko, eta ziur gaude oso lagungarriak izango direla Euskal Eskola Publikoak etorkizunerako behar duen proiektuaren aspektu garrantzitsuenak zeintzuk diren kokatzen joateko.

Bestalde, gutxitan izaten dugu aukera alderdi politikoaren ordezkariari, Hezkuntza Ituna edota Hezkuntza Lege berri baten aurreran zein den bere posizioa galdetzeko.

Hitzaldi eta jarduera guzti hauek gure arteko eztabaida zentratzeko garrantzitsuak izanik, ez dugu ahaztu nahi jardunaldi hauek zuen denon parte hartzerik gabe hankamotz geratuko direla.

Horregatik animatu nahi zaituztegu izena ematera eta egun guztirako prestatu ditugun hitzaldi eta lan dinamiketan parte hartzera.

Ziur gaude, aurtengo jardunaldi hauetatik aterako ditugun ondorioak, oso baliagarriak izango direla aurrerantzean eskola publikoaren etorkizuneko proiektuaren norabidea definitzen joateko.

Amaitzeko esan eskertuko genuela eskola bakoitzak gutxienez ordezkari bat izatea jardunaldi hauetan.

Animo eta eman izena, <http://jardunaldiak2017.euskaleskolapublikoa.eus/> helbidean.

Euskal Eskola Publikoak behar zaitue.

HEIZE federazioa

2017-03-29